



# XALBADORREN

# PROFETAGOA

JOXEMARI ARANALDE

**OHARRA:** Urepelen irakurria heriotzako hamargarren urte mugakoan.

**A**gur, urepeldarrak. Agur, beste eskualdetako euskaldunak:

Duela hamar urte egin nuen plaza honetan bertan Xalbadorren obraren presentazioa. Gaur ez naiz hasiko gauza berak esaten. Gaur ez du zuen artzaiaren obrak presentazio beharrik. Joan den hamar urte hauetan hor dabil eskuz-esku. Irakurria da, eta entzuna. Gure abeslariak eman diote ahotsa Xalbadorren hitzari. Beraz ez daukat obra presentatzen zertan jardunik.

Zer dut beraz esatekorik? Egun gizonaz arituko naiz.

Egia esan, horretaz ere ez neukake zertan ariturik, obra ezagutzen duenak egilea ere ezagutzen bait du. "Odolaren mintzoa" liburuaren azken agurra egiteko bertsoan, honela dio Xalbadorrek:

"Liburu honen funtsa zuretu duzia?

Beraz ikusi duzu bere nagusia;

zortaka ixurtzerat hor baitut utzia

herri honi diotan maitasun guzia".

Egilearen berri badaki, beraz, haren liburua irakurri duenak. Hor dago idazlearen bihotzaren potreta edo argazkia. Hori da haren "Odolaren mintzoa". Eta hori ez da Xalbadorren kasua bakarrik. Edozein bertsolari nahiz poetak, zerbait egin nahi badu, bere bihotzaren berri eman beharko du. Eta Xalbadorrek hori egin du. Beraz zer erakutsi diozaioket nik haren obra irakurri duenari? Nik nere irakurketan bildu dudana eskaini nahi nizuke, entzule, gerta bait daiteke zuk ez bilatu izatea nik bilatu dudana. Ondoak biltzen ibiltzen direnei ere gertatzen zaie hori.

Biak -edo hirurak- bide beretik pasatu dira. Eta ez behin bakarrik, igual birritan edo gehiagotan. Hala ere ez ditu bakoizak denak ikusi, eta ez dituzte denek ondo berak bildu. Gauza bera gerta zeki-gukeen zuri eta neri Xalbadorren obraren irakurketan. Beraz nik nerea eskainiko dizut, noizpait zurearen berri izateko esperantzetan.

Nik Xalbadorri aurkitu uste dutan gauza hori, ez dakit nola izendatu. Adi dezagun bertso bat, zer den ikusteko. "Ortzirale saildu batetako sailean gogoetak eta otoitza" deitu sailean dago. Ikus zer dion, gurutzifikatuari mintzo delarik:

"Zure Aitaren eskuetarik badut kargu bat ukana:

bertutearen predikatzea gizonen artean barna.

Alegiazko kartsutasunez egiten dut ene lana,

baina Zu eta ene burua ezin dezazket engana".

Horra hor klarki adierazia gure bertsolariak bere eginbidea, bere obligazioa. Eta ez du bakarrik esaten zein duen bere egitekoa, gaizki betetzen duela ere esaten digu. Ez da benetakoa bere predikua. Itxurazkoa da bakarrik. "Alegiazko kartsutasunez" predikatzen du bertutea. Eta bere jokabidearen kofesione luze bat egiten digu gero ondorengo bertsoetan. Hitzez ezezik, egitez ere aitortu behar lukeen Jesus hori, ukatu egingo du Iondoni Petrik bezala. "Ixildu dut zure burregoer elkar zagutzean dugula".

Zer da Xalbadorrek bere kontzientzian senditzen duen eginbide hori? Zein izen emango genioke? Nik honela izendatuko nuke: Xalbadorren profetatza edo profetagoa. Norbaiten partetik mezu bat dakarren norbait da profeta. Ez da geroaren ikusle. Norbaiten partetik eta partez zerbait aldarrikatzen duen bat da. Eta zuen artzaiak horrela ikusten eta senditzen du bere burua. Mintzatu beharra dauka.

Ez daiteke isilik egon. Barneak manatzen dio mintza dadin eta me-  
zua zabal dezan.

Eta ez beza inork uste Xalbadorren kontzientzia hori bere azken  
urtetakoa duenik. Noizkoa du “Dohaina eta lana” bertso andana?  
“Bederatzi urte” besterik ez da Mattinek eta bie elkar ezagutu zute-  
la. Artean gaztea da Xalbador. Zerk eginarazten dio bertularitzaz  
eman den lezionerik ederrenetako hori? Ez al du ordurako bere kont-  
zientzian eginbide bat senditzen gure bertsolariak? Ez da dudarik  
senditzen duela. Bestela nola hasiko da Urepeleko zokotik Euskal  
Herri osora bere ahotsa zabaltzen? Gero badakigu zein eta zer izan  
den bertolaritzan Xalbador; baina artean ez zen inor. Nolaz ausar-  
tzen da beraz? Barneak manatzen diolako. Mandatu bat senditzen du  
bere kontzientzian.

Baina ez ezazu uste, entzule, berak senditzen duen mezu hori za-  
baltzea, beti gustoko lana duenik. Entzun bere aitormena:

“Badakit askoz ere nukela hobea  
nehori ez agertu ene dolorea;  
odolaren mintzoa eduki gordea,  
nahiko nuke, bainan ezin dut ordea”.

Gustatu edo ez gustatu, ari beharra dauka. Nola izango zuen ba  
gustoko lana, Euskal Herri osoari eta batez ere Ipar Euskal Herriari -  
egiten dion salaketa, euskara salduz eta galduz bere buruaz beste egi-  
ten ari omen dela-eta? Nola izango zuen ba gustoko lana Eliza salat-  
zea, erdaldunei predikatu beharrez euskal anima hiltzen ari dela-eta?  
Haur-erditzea bezain mingarri gerta zekiokkeen mezu hori eman be-  
harra Xalbadorri; baina eman egiten du. Eta ez dio barkatu Herriari,  
ez Elizari, ez familiari eta ez inori. Mandatua, mandatua da, eta ez  
daiteke “eduki gordea”, nahiz hori errezago eta atseginago izan.

Kexatu bezala ere egiten zaio Jainkoari bere eginbide hori, egin-  
bide ilun eta triste bat delako. “Nigarra begian” deitu sailean, honela  
hasten zaio Jaunari kantari:

“Jainko maitea, nago noiz deituko nauzun  
munduan zahaltzerat zerbait alaitasun;  
ez dakit beti danik zer gaitik naukazun  
gutarteko berri txar guzieren oihartzun”.

Horra hor beraz gure artzaia bere kontzientzian senditzen duen  
eginbideari erantzuten bere nahiaren eta gogoaren gainerik.

Bere nahiaren eta bere gogoaren gainerik, entzule, eta bere buru-  
aren ahultasuna ikusten eta aitortzen dituela. Ez da Xalbador harro  
bat. Ez da ari “zu pekatari”ka besteri. Bere kofesioa egiten du le-  
henik. Beraz ez da ari lan horretan, bera besteak baino hobea den us-  
tearekin. Lan horretan ari da, ari beharra daukalako. “Kargu bat”  
daukalako. Horregatik deitu dut nik Xalbadorren gauz hau  
“Xalbadorren Profetagoa”.

Eta bere kontzientzian senditzen duen mandatu horri eskerrak eta  
berari lehial izan beharrez, zuen bertsolariak bere bidea egiten du.  
Berea kantatu du. Ez da ibili modaren arabera. Modaren arabera ibi-  
li izan balitz, ez genuen gaur izango bertularitzak eman duen erlijio-  
bertso andanarik harrigarriena. Modak, harek aitortu duena ukatzea  
eskatzen zuen. Ordurako erlijioa uzten ari zen Herri hau, kaltegarria  
omen zela-eta bere askatasuna eskuratzeko. Eta ordu berean hor ate-  
ratzen zaigu gure Xalbador “Jainkoa eta ni” bertso-sail harrigarriare-  
kin. Ez ditu ez onesten bere erlijioaren manera guztiak. Zehazki eta  
argi salatzen du noizpait jaso zuen beldurrezko erlijioaren beltza. Ez  
dago klarkiago adierazterik zertaraino gorrota daitekeen gaizki pre-  
sentatzen den erlijio bat. “...desgustaturik damuz bete egon izan  
naiz bortzetan, ez sorturikan Jainkoaz deusik ez dakiten tokietan”.  
Horretarainoxe heldu daiteke bat. Zer nahi duzu mespretxu eta kon-  
dena haundiagorik hori baino erlijio batentzat?

Baina mamu-itxura beldurgarritan agertu zioten Jainko harek,  
erakutsi zion bere benetako aurpegia gure artzaia, eta ohostu zion

bihotza ederraren ederrez. Eta zer bertsoak! Zeinek eta non ezagut-  
zen du inork argiagorik, zehatzagorik, beteagorik eta berezkoagorik?

Baina gaur ez naiz etorri Xalbadorren erlijioetasuna adieraztera.  
Gaur haren izaitearen berezitasuna agertzeri etorri naiz. Bere bidea  
nola egin duen esatera. Bere mandatua nola bete duen begien bistan  
jartzera.

Horixe da nik Xalbador adiskidearengan ikusi uste dudana, eta  
nik “Xalbadorren profetagoa” deitu dudana, eta haren obraren ongi  
baloratze lagungarri izan daitekeena.

Gure ikasle guztiei dei bat eginez bukatu nahi nuke. Ezagutu eza-  
zue Xalbador, ezagutuago eta haundiago ageri bait da, Urepelearen  
ohoretan eta Euskal Herri osoaren mesedetan.

